

Hitz beste

Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak

Txominen ohiturak

LIESBET SLEGERS

Itzultzailea: LEIRE ARANO

Ibaizabal, Euba, Bizkaia, 2011

Urrats sendoak

Badira urte batzuk Liesbet Slegers egile opa-roaren liburuak ezagutzen ditugula, Txomin eta Katalinekin milaka irakurlek *etxean laguntzen, erosketak egiten, komunean aritzen, eskolako lehenengo egunak igarotzen*... ikasi baitute.

Oro har, bildumak, egitura erraz baten bidez, eguneroko kontuak azaltzen ditu, eta, modu horretan, informazio ugari helarazten digu. Fikziorik gabeko kontakizunek, kontzeptuak ikasteko pentsatuak, bizitzako gauzak erakusten dizkigute.

Kontu arinak dirudite, baina eguneroko kontuak modu didaktikoan azaltzen dakiten liburuek erakartzen dituzte maiz irakurleak. Oihartzun nabarmena lortu dute liburu hauek guztiek; izan ere, bibliotekako haur txikien iazko maileguren artean nagusi izan ziren, gehien hartu eta eraman ziren aleak izateraino.

Gurean ezagunak ditugu Txomin eta Katalin, baina beste hizkuntzetan *Iago* eta *Uxia* dira (galegoz), edo *Pol* eta *Laura* (katalanez), *Nacho* eta *Laura* (gaztelaniaz). 1975ean Belgikan jaio zen ilustratzaile honen pertsonaiek jatorriz *Karel* eta *Kaatje* izen holandarrak dituzte.

Gurean, lehendik *Txomin* formatu handiko album ilustratua genuen eta, orainoan, *Txominen ohiturak* kaleratu berri da. Pertsonaia ezagututa, modu didaktiko eta ludikoan, umearen lehenengo esperientzien berri izango dugu. Liburuak heztea du helburu, hau da, haurra etorkizunerako prestatzea, eguneroko ardurak hartzea eta, horrela, bizitza ezagutzea. Liburuaren irakurlea, baina, aktiboa izatea eskatzen du, ezkutuan dauden



marrazki eta egoerak agerian uztea, eta gertaerak lotzea eta osatzea. Beraz, irakurleen eta heldu baten presentzia eta inplikazioa eskatzen du.

Lrudi biziak dira, distiratsuak eta koloretsuak, trazu sendoz marraztuta. Pertsonaiak akaso estereotipatuak izan daitezke: Katalinek erosketak egiten ditu, amaren haurdunaldiekin jakin mina pizten zaio, etxean laguntzen du edota zaintzailearekin dago. Txominek, aldiz, hegazkinean joan zeneko esperientzia kontatzen du, edo eskolako lehenengo eguneko, lagunaren etxera joan zenekoa, etab. Haurren heziketaz ari garela, esango nuke egileak egungo familien balioen aniztasuna kontuan hartu beharko lukeela liburuetan agertzen diren zenbait jarduera azaltzeko, funtzioak eta erreferenteak aldatu egin baitira, eta irakurketak eta ilustrazioak eman dezaketen informazioa gizartearen rolak barneratzeko izaten baita.

Dena den, liburu honek duen abantailarik handiena da eskolaren eta etxearen arteko zubia eraikitzen duela, familia eta ikastetxearen helburuek bat egiten dutela. Bilduma hauetako liburuetan bizitzaren ezagutza jasotzen da. Alde

horretan, konstruktibismoaren teoria psikologikoari jarraitzen dio, hots, eskola ezagutzaren transmisioaren oinarria da, norberaren beharretatik eta interesetatik abiatuta ikasten da. Eskolako lana eguneroko bizitzara hurbildu eta txertatu nahi da, eta hortik sortzen diren beharrei aurre egin. Izan ere, Joxe Amiama irakasleak dioen bezala: «eskola eta familia helburu bera duten bi sistema desberdin dira. Hastapenetik pertsona heldua izan arte, etxeko arduetan erantzukizuna baldin badu haurrak, eskoletan ere errazago hartuko ditu zereginak, ikasketekin trebeagoa izateko aukera gehiago izango ditu».

Horrela, bada, eskolaren eta familiaren arteko harremanak joriagoak eta aberatsagoak izateko bideak jartzen ditu liburu honek.

Asun Agiriano



Irudien eta hitzen liburu potoloa
OLE KÖNNECKE
Alberdania, Irun, 2010

Ezagutza-liburuak

Haurrentzako liburuek ez daukate zertan literaturazkoak izan. Batzuek ez dute ipuina edo fikziozko kontakizuna garatzen, informazioa helarazteko asmoari helden diote; horren adibide dugu formatu handiko liburu hau, irudien bitartez lexikoa jasotzea helburu duena.

Euskal liburuen merkatuan informazio-liburuak hain dira urri, ezen bitartekari interesatua gai baita dagoen eskaintza kontrolpean izateko eta nobedaderik interesgarrienak antzemateko. Kasu hori da esku artean dugun liburuarena, marrazki eta hitz solte osatua, inguru hurbileko informazioa jasotzeko balio diguna. Eta deigarria egiten zaigu, gutxi direlako horrelakoak, gehienak, gainera, itzulpenak.

Gurean, eskolak duen heziketa-ereduek ez du ikasliburuetatik aparte, beste informazio-libururik eskaintzen. Heziketa alboratuta dago esperientziatik eta autoikasketatik. Horregatik, agian, argitaletxeen aldetik ez da ia saiakerarik izaten euskaraz sortutako informazio- eta ezagutza-libururik argitaratzeko.

Haurra, bizitzaren lehenengo urteetan gai da, informazio-kopuru handia zurrupatzeko, hortik jasoko ditu nortasuna eta pentsamendua eraikitzeko osagaiak. Hiru urte ditueneko, inguruko

munduko informazioa aukeratzeko hasita dago. Eta, nago, liburu hauek ezagutzarako jakin-mina pizten dutela; irudia eta hitza elkartuta, haurrak kontzeptua ikusi eta bereganatzen duela.

Umeak mundua ulertzeko duen grinan oinarritzen da bere jakin-nahia, eta jasotako ezagutzarekin bat etorriko da bere jardunbidea. Gurasoek eta eskolak umearen egarri hori eta jakin-mina baliatu behar dituzte.

Ikasliburuez gain, oso garrantzitsua da eskolan informazio-liburu ugari izatea: entziklopediak, hiztegiak, gai monografikoei buruzko aleak, atlasak, etab. Izan ere, informazio-iturri ezberdinok baliagarriak izango dira haurren ezagutza-maila aberasteko, kuriositatea pizteko, ikuspuntu berriak emateko eta ikasteko beste bide batzuk esploratzeko; azken finean, irakurle autonomoak formatzeko.

Liburu hau oinarritzeko dibulgaziorako pentsatuta egon arren, egokia da lehen hezkuntza-prozesuan ezagutzari forma emateko. Esan daiteke jolas gisa antolatzen dela, galdera-erantzunak egiteko aproposa izateaz gain, lexiko berria ikasteko ere interesgarria dela.

Umeak eta helduak elkarrekin irakurtzen badute, helduak aukera izango du umearen ezagutza balioetsi eta ebaluatzeko.

«Irudien eta hitzen liburu potoloa»k (egjari zor, ez hain potolo, handia bai ordea) haurren ingururik hurbilena ezagutzeko aukera ematen du: sehaska, logelako jostailuak, bainugela, egongela, etab.

Jarraian, etxeko bazterretatik kanpo, inguru hain hurbilekoak ez diren terminoak ere ezagutuko ditu: urtarokak, ortuko tresnak, frutak, mendiko eta itsasoko animaliak, irakasteko lehenengo ikasgaiak (zenbakiak, alfabetoko hizkiak, kolo-reak). Haurrentzako lehenengo irudizko hiztegia izan daiteke.

Asun Agiriano



Plast!
PHILIPPE CORENTIN
Itzultzailea: IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA
Ikas, Uztartitze, 2010

Josturarik gabeko liburua

Ilustratzaileak kontalari grafikoa dira eta batzuek, ekinaren ekinaz, berezko «ahots» nahastezina lortzen dute. Horixe da Philippe Corentin-en kasua. Marrazki umoretsutik publizitatera igaro eta hortik haurrentzako liburuetara hurbildu den egile frantsesa dugu Corentin. Adibidez, otsoen inguruan dituen ipuin ugarietan lortu du irakurleak berehala identifikatzea marrazkien egilea zein den. Urteekin, marrazkiak zizelkatuz joan da, eta hartzaileak marrazkiok ondo identifikatzea eta baloratzea lortu du.

Corentinek bide berriak urratzen ditu sarri eta, oraingoan, irudia liburuaren formatuari moldatzea nahi izan du. Aldez aurretik, ilustratzaile bikain honen liburuetan, ohikoa bihurtu zaigu formatuari erreparatzea, eta horixe da, hain zuzen ere, oraingoan txalotuko dugun alderdia. Jeneralean, album ilustratuetan irudia ezker-eskuin ikusiko dugu; kasu honetan, berriz, liburuaren goitik behera hartu beharko dugu, bertikalean irakurtzea eskatzen duelako. Benetan deigarria bertikalean irakurri behar hau!

Formatu bakoitzak du bere xarma, esperimentazioerako bidea zabaltzen duen liburu mota baita album ilustratua. Oraingoan, liburuaren tankerak istorioari zentzua ematen dio. Hainbat aukerakin jolasten du egileak, bai kanpotik bai barrutik ere. Eta hartzaileak jolas gisa hartzen du egilearen atrebentzia, ohikoa ez delako beste postura batzuetan irakurtzea.

Otso gosetia dugu protagonista nagusia, betiere mokadu goxo bat harrapatu nahian. Inguru baina, ez da basoa izango, ura ateratzeko putzu bat baizik. Polea gora polea behera, animalia guztiak, baldean jarrita, jaitsi eta goratuko dira putzuan, batzuk engainatuta, besteak jakin minaren atzaparretan erorita. Kontakizunak egitura zirkularra du, hasiera eta amaiera berdinduz. Gertaerak kateatzen doaz, erritmo handiko errepikapenak agertzen zaizkigu, irudiak gora eta behera aldi berean... azkenean, otsoak hasi eta otsoak bukatuko du putzuaren jokoa.

Gaztelaniara itzultitako egile beraren *Cataplum!* ere istorio bitxia da (jatorriz, *Patratas!*) eta esku artean dugun honen antz handikoa; orrialde guztietan otso gosetia untxiak harrapatu nahi ditu eta, gora eta behera, lur barruko zulo luzetik euren arteko lehia jarraituko diogu.

Komentatzen ari garen liburuari euskarazko edizioan *Plast!* izenburua jarri zioten; jatorrizkoan, frantsesez, *Plouf!* izan zuen, eta gaztelaniaz, *Chaf!*

Interesgarria da ikustea nola narratzaileak kontakizuna zarataren eta hots soinuaren onomatopeiekin nahasten duen, esaterako, *Orduan ohartu da gas...* *Danbala! Horra baldea!*...

Hitz batzuk arrotz samarrak egingo zaizkio gipuzkera edo bizkaiera darabilen haur irakurleari, baina ilustrazioen indarra gailentzen da.

Berehala erakartzen gaitu ipuin umoretsu eta bizi honek. Ekintza eta akzio bat dira. Gainera, ilustrazioak garbiak eta koloretsuak izanik, umea estimulatzen egundoko gaitasuna erakusten du liburua.

Liburu umoretsua, dibertigarria, gozatzekoa!

Asun Agiriano



Meriendatzera etorri zen tigrea

JUDITH KERR

Itzultzailea: MANU LÓPEZ GASENI
Pamiela-Kalandraka, Iruñea, 2010

Arrautza ala oiloa?

Irudiaren ikertzaile askorentzat irudiztatzea hizkuntza bat da, eta, diotenez, marrazkia da haur liburuetan oinarritzko hizkuntza. Ilustratzea kontaktea ere bada; testurik egon ez arren (hitzik gabeko album-etan, adibidez), literatura existitzen da. Beraz, ilustratzailea narratzaile grafikoa genuke.

Kasu honetan, Judith Kerr *egile osoa* dugu, idazlea eta ilustratzailea den heinean. Alemanian jaio zen 1923an eta, naziengandik ihesi ibili eta hainbat lurralde ezagutu ostean, gaur egun Ingalaterran bizi da. Erbesteko bizimodua eta haurtzaroko oroitzapenak, esaterako, *Hitlerrek untxi arrosa lapurtu zuenean* gazteentzako eleberriari kontatu zituen, aspaldi Mario Onaindiak itzulia.

Meriendatzera etorri zen tigrea haurrentzako album ilustratua, 1968an argitaratu arren, oraindik gaurkotatua eta interes osoa mantentzen ditu. Egileak Arte ikasketak ditu eta, komunikatzeko orduan, hitza eta marrazkia biak erabiltzen ditu. Irakurle arruntok, gehienetan, irakurtzera ohituta gaude, baina zeinek erakusten digu irudiak behatzen? Egile osoen garapena kontuan izango bagenu, neure buruari galdetzen diot ea zein hizkuntza izango litzatekeen aurrenengoa: marrazkia (arrautza) ala testua (oiloa)?

Album ilustratuetan testuen eta irudiaren arteko oreka behar-beharrezkoa da, ezinbestekoa da hizkuntza bietan erabiltzen diren baliabide komunikatiboen ekonomia.

Kontu horiek eztabaida franko sortu badute ere, utz ditzagun momentuz alde batera, eta has gaiten ipuin honen nondik norakoak aztertzen.

Egitura aldetik narrazio klasikoak dugu: hasiera-korapiloa-amaiera. Ezusteko abiapuntua du, etxeko atean joka ari dena tigre gosetia baita. Sofiak eta bere amak, kortesiaz, sukaldara gonbidatu dute. Tigreak tea ez ezik etxeko jaki guztiak ere irensten ditu, goxoki mordoan jan eta inor ez da txunditzen. Horrela, bada, irakurleari harrigarria egingo zaio tigre bat nola bihurtzen den egunerokotasunaren partaide, etxeko eszenaren ohiko bisitaria bailitzan. Tigrea laguna dugu, baina kontakizunean aurrera egin ahala, irakurleok ezin dugu larritasuna saihestu, ezin delako asmatu istorioaren amaiera zein izango ote den. Ematen du arriskuren bat gordeta egon daitekeela. Horregatik, irakurketak hozkirria eragingo digu, amaiera zein izango ote den zain.

Istorio umoretsua dugu, surrealismo ukitua duena eta ironia puntu bat. Esango nuke liburua asmo handietatik alboratzen dela. Agian, ez da obra berritzailea izango, halere, bitxia da eta indarra du. Igartzen da bi teknikak menperatzen dituen egilearen duela atzean: irudiztatzea eta hizkuntza.

Abstrakzioetatik ezin urrunago dauden irudiak behatzea erraza da. Marrazkiek jite klasikoak dute, figuratiboa. Kolore ugariaren eszenek orri osoa hartzen dute eta, batzuetan, baita orri bikoitza ere. Egile honen irudien bertuterik nabarmenena da pertsonaiek eta, bereziki, animaliek samurtasun handia erakusten dutela. Animaliek gizaki itxura hartzen dute, ikusi, bestela, *One night in the zoo* liburuko animalian begi alaiak.

Judith Kerr-en istorioak positiboak dira eta helduen eta haurrentzako zuzeneko komunikazio afektiboa eta ludikoa errazten laguntzen dute, afektibotasuna eraginkorra baita.

Liburu hunkigarria da, harribitxia. Gera gaitzen ale eder honekin, eskuartean euskaraz gehiago izan arte.

Asun Agiriano

Saguzarrak egunez

JOKIN MITXELENA

Ilustratzailea: J. MITXELENA

Aizkorri, Bilbo, 2011

(Bigarren) liburu gogoangarria


Denbora batean, Euskal Herrian ilustratzaileak bakanagoak ziren; gaur, ugari dira. Arte Ederrak edota Diseinu Grafikoa ikasi duten askok, kasurik onenean, liburuak ilustratzen, egunkarietan marrazkiak egiten, kartelak eta horma-irudiak egiten, etab. dihardute. Gaurko marrazkilariek profesionalizatzeko bide zailari ekin diote. Bada, beraz, argialetxe eta baita irakurleen aldetik ere, ilustraziogintzari kasu egiteko sasoaia.

Jokin Mitxelena dugu haur-literaturako euskal marrazkilaririk ezagunetarikoa edo sendoenetarikoa bat. Esku artean dugun ipuinaren kasuari erreparatuta, egile osoa izateko premiari erantzuten ere badakiela erakutsi digu bigarren aldiz. Izan ere, lehenagotik ezagutzen genituen «Joan-joan» (Baigorri, 2002) eta «Armiarma txikia» (Baigorri, 2003), hain justu ere, egunkari honek bultzatutako Euskal Ipuinen bilduman ingelesez eta euskaraz kaleratutako liburuak. Enkarguzko lan horietatik aparte, Jokin Mitxelenak ez dio izurik istorioak sortzeko prozesuari, hainbeste urtetan besteen hitzak irudikatu ostean, kontakizun propioak sortzeko beharra sentitu baitu.

Animalia bitxi batzuk protagonista, 2002. urtean, *Xaguxarrarena* izan zen idatzi zuen lehenengo liburua. Orduan, hitzak poetikoki aukeratu eta testu errimatua aurkeztu zigun. Horrela, idazle sena erakutsiz, hitza eta irudia trebetasun handiz erabili zituen.

Liburu hartako kontakizunean, buruz behera loak hartzeko ahaleginetan zebiltzan bi saguzar genituen, Isabela eta Jenobeba. Sonoritate handiko izen xebebrek entzunda, irribarre ateratzen zaie oraindik ere haurrei.

Aurten, berriz ere animalia bitxi hauen ipuina kaleratu du. Antza, badago liburuen munduari lotuta dagoen mito edo aurreiritzi ezagun bat: bigarren zatiak ez omen dira onak. Topiko guztien moduan, asko du faltsutik, kontuan izanda, gainera, haur-literaturako mundu txikian arrakastatsua suertatzen diren istorioak ez direla hainbeste ezagutzen, eta irakurle askok ez dakitela zein den lehenengo eta zein bigarren.



Lehenengo lan hura berdindu edo gailentzea zaila egingo zitzaion Jokin Mitxelenari, baina, oraingoan ere, ez gaitu epel utzi.

Hegan majo ikasi ondoren, Isabela eta Jenobeba mundua ikusteko egarri dira, ez ordea gau ilunean, egun argiz baizik. Zer behar? Betaurreko beltzak jantziz gero, ederki joan daitezke airean eta, horretarako, bi saguzarrak hainbat animaliarengana abiatuko dira banan-banan galdetzerara nola lortu antiojoak: hontza, behia, igela... Zeinek jakin, baina, betaurreko beltzak non diren? Satorrak, dudarik ez! Bide luzea egin dute, eta galdetzen eta erantzunak jasotzen emandako denbora horren guztiaren ostean, zer eta... ia gaua iritsi dela, nekatuta daudela biak, eta zintzilikatu eta lo gelditu direla.


Oraingoan, kontakizuna ez dator errimatuta, baina elkarrizketaren ateraldi xebebre bitartez, erritmo bizia lortzen du Mitxelenak.

Egilea marrazkilaria den aldetik, adibidez, betaurrekoak eta koloreak lotzen ditu. Ez da kasualitate behiak betaurreko berdeak behar dituela soilik, belarra ondo ikusi ahal izateko. Jolasgura horretan, logikoa denez, igelak betaurrekoak urperatzeko bakarrik erabiltzen ditu. Animalia batetik bestera salto eginda kateatzen ditu egoerak, irakurketa arina lortuz. Mitxelenak gaiari umorearen ikuspuntutik heltzen dio benetan dibertigarria egingo zaigun irakurketa honetan.

Istoria xumea da, haurrei oso gertuko egingo zaiena. Jakin-mina pizten duten animalia hauek badute nolabaiteko xarma eta erakargarritasuna haurrentzat. Beti gauez ibiltzen diren misterioa

izan daiteke, iheskorrek direla akaso, edo batek daki! Ezohikoak dira eta, gainera, gaur egun, desagertzeko zorian omen daude. Ipuin honekin etxeko bihurtuko ditugu Mitxelenak mintzaira literario aberatsa duela erakutsi digun (bigarren) honetan.

Asun Agiriano



Osaba Elefante

ARNOLD LOBEL

Itzultzailea: MANU LÓPEZ GASENI

Pamiela-Kalandraka, Iruñea, 2011

Atea zabaldu zuen

Arnold Lobel oso ezaguna da haur txikien literaturan; euskaraz ere aspaldi argitaratu ziren haren lan batzuk eta *Sagu kontuak* paregabe hura bezala idazle eta ilustratzaile honen zenbait lan plazaratu izan dira. Azkena, 1981ean kaleratu zen *Osaba elefante* hau.

Album baino gehiago liburu ilustratuak diren lan hauetan egileak istorio baten barruan hainbat gertakari, hainbat istorio txiki, kontatu ohi ditu eta oraingoan ere antzeko egitura erabili du. Istorioa kontatzen duen elefante txikiaren gurasoak nabigatzera joan dira belaontzi batean, elefante txikiak, aldiz, etxean geratzea erabaki du: «ni ez nintzen joan haiekin. Tronpa mukiz beteta eta eztarriko mina neukan. Eta ohean gelditu nintzen» (6. or.). Egoera horretatik abiatzen da liburu honen argumentua. Narratzailearen gurasoak itsasoa desagertu ondoren osaba etorriko zaio eta haren etxera eraman.

Osaba ilobaren topaketa, bidaia, osabaren jarrera bizitzaren aurrean... oso modu simple eta, era berean, goxoan kontatzen zaigu. Guztia haur, barka, elefante txiki baten ikuspegitik narratua... eta amaiera lortuarekin. Izan ere istorioaren zirkulua itxi egiten da egileak ederki jositako

amaiarekin, eta istorioaren kapitulu zerrenda biribilduz (osabak atea zabaltzean hasten dena, osabak ixten duenean amaitzen baita).

Animalien pertsonifikazio argia dugu, Lobelek bere lanetan egin izan ohi duen bezala, eta oso pertsonaia gutxiarekin (esku bateko hatzekin kontatu daitezke liburuan ageri direnak) istorio simple, arin eta hungigarria erakusten zaigu.

Elefante txikia bakarrik dago etxean eta halako batean «logelako atera zabaltzen entzun nuen. "Kaixo, zure Osaba Elefante naiz", esan zuen ahots batek» (8. or.) eta une horretatik aurrera Osaba Elefante eta ilobaren arteko harremanaren berri izango dugu, nola joaten diren elkar ezagutzen, nola bidaiatzen duten osabaren etxera, hango jolasak, istorioak, gertakariak... kapitulu ezberdinetan banatuak. Lobelek, arestian aipatu bezala, osotasun batean hainbat istorio labur kontatzen baititu. Horrela, lanpara piztean ahots bat entzuten dute eta hortik abiatuta lanpara magikoaren mundura eramaten gaitu egileak (Aladinoren lanpara gogoraziz) harik eta amaiera harrigarria suertatu arte. Eta harriduraz, umorez, maitasunez joango da iloba eta Osaba Elefantearen istorioa osatzen, lotzen, korapilatzen istorio handi bat erdietsi arte.

Horregatik guztiagatik, testuaren, irudiaren, itzulpenaren eta edizioaren kalitateagatik gozatu ahal izango dugu iloba eta Osaba Elefantearen artean igarotako «egun zoragarri» horiekin.

Xabier Etxaniz Erle



Paulen abentura miresgarria

XABIER OLASO

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA

Aizkorri, Bilbo, 2011

Itsasoa gurasoen ohean dagoenean


Abentura eta miresgarria izango dela dio egileak liburu honen izenburuan; eta ilustratzaileak arrainen artean sirena batekin batera igerian ari den mutiko baten irudia erakusten digu; pijama jantzita duen mutiko batena, hain zuzen. Eta abiapuntu horretatik abiatuta irakurleak istorio fantastikoa eta abenturez betea espero dezake. Xabier Olasok, baina, bestelako kontuak aipatzen dizkigu ipuin labur honen hasieran. «Paulek oso atsegin ditu igandeak. Igandeetan nahi duen ordura arte egiten du lo» horrelaxe hasten da hirugarren pertsonaia kontaturiko istorio hau, Paulen igandeak, eta igande goizetan egiten dituenak, kontatzen dizkigun ipuina. Pauli igande goizetan gehien gustatzen zaiona honako hau da eta: «Esnatu eta, pixkatean, gurasoen ohera joaten da igandeetan. Ohitura hori du kozkorragoa zenetik. Txoriak habian baino pozikago egoten da gurasoen ohe beroan. Gozatu handia hartzen du erdi-erdian egote hutsarekin» (6. or.).

Irakurleak orriak pasa ahala Paul ezagutzen joango da; haren jolasak, jokabidea, irudimen ikaragarria... ikusi ahal izango dugu Paul itsasontzi pirata bateko kapitaina delarik edo *pressing-catcheko* borrokalaria, beste batzuetan, aldiz, zirkoko saltinbankia izango da edo mamua; eta horrela, Paulen jolas eta ekintzen berri izanez, irakurlea mutiko bizi horrekin identifika daiteke (adin aldetik ere irakurle implizituaren adineko baita gure Paul hau).

Xabier Olasok eta Jokin Mitxelenak eguneroko (edo igandero, esan beharko genuke) errutina erakusten digute. Zer egiten duen, zer gustatzen zaion, nolako den Paul. Eta horretarako irudiek ere ederki islatzen dute testuak dioena, are gehiago kolore bizi gutxi batzuk erabiltzeak (eta Paulen pijama horia horietako bakarrenetarikoa izateak) are indar handiagoa ematen dio gure mutikoaren pertsonaiari, arreta gune berezia bilakatzen da marroi, gris, urdin koloreen artean; Mitxelenaren irudiek testuaren irakurketa aberastu egiten baitute, bestelako irakurketa osoagoa, biziagoa bilakatu. Horrela, testuaren eta irudien arteko kontakizun horren bidez pertsonaia ezagutuko dugu eta honen hainbat abentura eta jolasen berri izan. Horrek guztiak, hain zuzen, ipuinaren une gorenera iristeko balioko du.

Eginiko deskribapen horien ondoren liburuaren izenburura bueltatuz Paulen abentura ezagutuko baitugu; gurasoen ohean barneratu eta honelaxe aurkezten baitie bere burua gurasoei: «-Paul Itsasondo naiz, itsas hondoko altxor-bilatzaila!» (16. or.) eta ondoren itsas ondora barneratuko da mutikoa guraso bien artean oheko behealdera eginez: «Aho bete arnasa hartzen ahalegindu da, uffffffff. Eta, ez bat eta ez bi, buruz behera murgildu da. Itsas harrotua dela dioen izara zuri eta ohe-azal urdinaren sakon ilunean galdu da» (20. or.). Izara eta ohe-azalen arteko bidaia horrek, ordea, harridura sortaraziko die gurasoei, eta baita istorioa amaierara arte irakurtzen jarraituko duen irakurleari. Izan ere hortxe hasten baita Paulen abentura miresgarria, gu geu ere harritu eta irribarrea ezpainetan utzi gaituen abentura ederra.

Xabier Etxaniz Erle



Luka eta denbora izozteko makina

UNAI & LUKA PASCUAL

Itzultzailea: INMA ERREA

Denon artean, Berriozar, Nafarroa, 2011

Begiak ehiztari handiak

Denon artean Nafarroako argitaletxea oraindik orain sortua da. Argitaratu dituen lehenengo lanak helduentzako itzulpen liburuak izan dira, horien artean munduan ospetsua egin den Hesell-en «*Haserretu zaitetz!*».

Pozgarria zaigu haurrentzako ipuinen lurraldean lehenengo urratsak egiten ari direla ikustea. Gainera, gure gauro liburuari, *Luka eta denbora izozteko makina*-ri, aukera eman diote beste herrialde batzuetan ere bidaiatzeko, aldi berean euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz kaleratu baita.

Orrialde gutxiko liburu, baina aldi berean oso grafikoa dugu, zuri-beltza nagusi eta orrialde batzuetan kolore deigarriren bat: gorria, horia, urdina... dena oso neurtua eta, irudiak argazkiak izanda, narrazioari indar handia ematen diotenak.

Liburu ederra da forma eta egitura aldetik, tonu poetikoak istorioan sartzen gaitu poliki-poliki. Beti hartu izan da argazkia bizitzaren/denboraren lekukotza adierazteko bitarteko

fidagarritzat, argazki batek sortzen duen eragin handienetarikoa da begirada askorekin elikatzen dela, iruzkin ugari jasotzeko bideak zabal ditzakeela. Horregatik, aurkikuntza da argazkilari baten begirada haur-literaturako irudien lurraldean txertatzen dela ikustea, esperimentuak egin ahal izateko aukera ematen duelako.

Liburu haurrarekin batera irakur daiteke, erakutsi eta frogak egin. Izan ere, Unai Pascual-ek hezkuntza eta ikusizko trebetasunaren inguruan egiten du lan; eta Luka protagonista lauzpabost urteko haur egilea da.

Luka egile-protagonistari argazkiak egitea gustatzen zaio. Zentzu poetikoan denbora izozteko edo menperatzeko haur baten ahaleginak lirareke kontakizunaren gai nagusia. Zentzu horretan, bitxia da argazkigintzako esperientziak zer-nolako berezitasuna ematen dien haur-literaturako irudiei. Horregatik, atentzioa ematen du argazkigintza zein ondo egokitzen den haur-literaturako irudien egungo erronkara. Egin dugun objektuaren argazkia da protagonista nagusia (baloia, kamioneta, txakurra, e.a.), baina subjektuak ere garrantzia du, hots, argazkilariak, ikusleak edo irakurleak.

Liburuaren haria tupustean eten egiten da anekdota baten bitartez, bukaerako jauzia ez da hain poetikoa edo metaforikoa izango. Amaiera da, beharbada, kontakizunaren alderik ahulena. Akaso, tupusteko bukaerak puntu umoretsua edo ezustekoa erants diezaioke narrazioari, baina nago tonu poetikoan murgilduta braustean amaitzeak giro zapuztuaren sentsazioak utzi gaituela, bat-bateko errealtate «gordinera» itzultzen gaituela.

Interesgarria da argazkia errekurso sinboliko nola bilakatzen den ikustea, liburuak gonbidatzen zaitu hausnartzera, berriro irakurtzera, begiratuzera. Iradokitzailea da oso: argazki bat beti bera eta beti ezberdina. Izan ere, begirada noiz gertatzen den baldintzatzen du ikusten dena. (Liburu honen iruzkinarekin gertatzen den moduan, bihar beste bat litzateke akaso).

Haur-literaturari egiten dion ekarpena aintzakotzat harturik, nago liburuak artea edo proposamen artistikoarekin zerikusi estuagoa duela literaturarekin baino. Liburu ikusi, behatu egiten da, ez da irakurtzen (hizkien tipografiak haurrek irakurtzea zaildu dezake).

Interpretatzeko liburua da. Berez, ilustratu hitza latineko *ilustrari* hitzetik dator, hau da, argitzea, argi egitea. Eta eskuartean dugun honetan ideia horiek bete-betean kordatzen dira, askatasun handiarekin egindakoa baita. Jauzi arriskutsua eta, aldi berean, jauzi librea.

Asun Agiriano



Xola eta ameriketako izeba

BERNARDO ATXAGA

Ilustratzailea: MIKEL VALVERDE

Erein, Donostia, 2011

Gogoak ematen digunean

«Xola zorientsu bizi zen, oso zorientsu. Gogoak ematen zionean ateratzen zen etxetik, eta gogoak ematen zion lekura joaten zen. Gero, gogoak ematen zionean, etxerako bidea hartzen zuen, batzuetan poliki eta beste batzuetan azkar, zer eskatzen zion gogoak.» Hitz hauekin hasten da *Xola eta ameriketako izeba* ipuina. Atxaga eta Valverderen txakurrak hamabost urte bete baditu ere lehen liburuetako Xola bera aurki dezake irakurleak ipuin honetan ere; eta hasieratik ikus daitekeen bezala Xola, gogoak ematen diona egiten duen txakurra denez gero, oso zorientsu bizi da.

Bernardo Atxaga txakur bitxi eta erakargarri honen liburu guztietan bezala, oraingoan ere, ideia baten inguruan ari da, askatasuna, norberak egin dezakeena, gogoak ematen diguna egitea... eta Xola izango dugu erabaki eta uste horien guztien protagonista nagusia, baina ez bakarra. Xolak telebista kate baten aurrean eginiko adierazpen batzuek Grogok jaunarengan ezinegona sortaraziko dute. Xola *rara avis* bat da, askatasun handia (agian handiegia) duen txakurra da eta ameriketako Wyomingin bizi den izeba Clementinereen bisita dela eta, Grogok jaunak aspaldi gordeta zuen Xola lotzeko katea utziko du bistan. «Hitz egin beharra

daukagu, Xola» (14. or.) esango dio Grogok txakurrari egoera azaldu nahian, baina Xolaren jarrerak eta telefono dei batek etengo dute elkarrizketa eta Grogok jauna aireportura abiatzen denean Xolak gauza bat aurkituko du etxean: «Bat-batan, atentzio eman zion normala ez zen zerbaitek. Etxe sarrerako kakoan zintzilik, kate bat zegoen. Hobeto begiratu, eta orduan jabetu zen: bai, garai batean hura jartzen zioten lepoan. Harekin lotuta ateratzen zuten paseatzera» (18. or.).

Egoera are gehiago nahasteko Xolak telebistan ikusten duen dokumental batek Wyomingeko *lady* batzuk erakusten ditu txakurrak lotuta paseatzen.

Xolak bizi duen askatasun garai amaieraren aurrean ote gaude? Grogok behar bada neurri batzuk hartu beharko direla uste du, Xola ere harrিতa dago *lady* edo amona haien jokabidearekin: «Bistakoa zen katea eta Clementinereen bisita erlazioan zuten zeudela [...] andre hura Wyomingeko *lady* bat zen, eta Wyomingeko *lady*ek txakurrak lotuta eramateko ohitura zuten (...) Oso kezagarria zen kontu hura. Benetan» (20-21. or.).

Clementine, baina, ez da ohiko emakumea. Gogoak ematen diona egiten duen pertsona baizik, eta Xolak jasan beharko du beste baten gogoak. Horrela, poliki-poliki, txakurrak, izeba Clementinereen jarreraren aurrean, eskatu eta exijituko ditu arau batzuk: «Etxe honetan ordu biak baino lehen bazkaldu izan dugu beti», «Denetik jan behar da!», oso egoera xelebrea eta bitxia sortaraziz.

Atxaga eta Valverdek oso istorio interesgarria eskaintzen digute. Ohi bezala irudiek ederki osatzen dute idazlana; guztiz adierazgarriak dira Xolaren aurpegi ezberdinak, Mikel Valverdek trazu gutxi batzuen bidez ederki lortzen du txakurraren —eta gainerako protagonisten— espresioak adieraztea. Eta ipuinaren irakurketan —testuarenean eta ilustrazioarenean— bada, aurreko Xola bildumako liburu guztietan bezala ironia eta umorearentzako lekua. Istorioak, urteak eta gertakariak pasa arren Xolak ez baitu gugan harridura eta irribarrea sortarazteko indarra galdu.

Xabier Etxaniz Erle



Josetxo hargina
MITXEL MURUA
Ilustratzailea: ANTON OLARIAGA
Elkar, Donostia, 2011

Katea eten zenean

Ahozko literaturan badira zenbait kontakizun antzeko egitura dutenak. Nor da animaliarik indartsuena? Nor da pertsonarik azkarrena? Eta antzeko galderei erantzunez kate bat osatzen joaten da, harik eta inor gutxi espero duen erantzuna aurkitu arte. Horrela, zeruan gora gehien igo den hegaztia txepetx txikia izango dugu, arranoen eta horrelakoen aurretik; animaliarik indartsuena inurriaren parekoa dugu. . . egitura hau, berez, nahiko ezaguna da eta hortik abiatu da Mitxel Murua herriko gizakirik indartsuena bilatzeko. «Herriko indartsuena ez, munduko indartsuena da Joxetxo! Domina bat merezi du!» esango du, orduan, herriko alkate «harro eta txepel hutsa»k.

Eta, hain zuzen, Josetxori domina emateko ekitaldian hasiko da gizaki-kate luzea, Josetxok errementariarengana bidaliko ditu, honek meatzariarengana («nik burdinarik ez baneuka, ezingo nuke mazorik egin»), meatzariak, aldiz, kamioilariarengana («kamiorik ez baneuka, dena alferrik, ezingo nuke burdina inora eraman»), kamioilariak zebitzugune nagusiarengana, eta azken honek alkatearengana bidaliko ditu guztiak, eta kate horretan zalantzak eta haustura sortuko. Herritarrek oso ongi hartzen dute harginari domina ematea, bai eta errementariari edo meatzariari,

kamioilariari. . . baina inola ez alkate txepelari: «Bere buruari dominak jartzten dizkiona ez da indartsua. Harroena da!» esango du Josetxo harginak, eta esaldi horren ondoren sorturiko mugimenduak alkatea botako du.

Muruak, orduan, ipuinaren bigarren zatia ekiten dio: alkate berriaren aukeraketari. Eta, oraingoan, ipuinak jarrera populista hartzen du; lehengo alkate txepelaren eta Josetxo harginaren artean aukeratu beharko du herriak, eta prozesua eta jokabidea modernoa eta gaurkoak izan arren, antzinako ipuinetako bereizketa argia ageri da. Txepela eta harroa *versus* langilea eta herrikoa; eta hemen mundua bi koloretan bakarrik ageri zaigu. Ez hori bakarrik, herritarren artean ere irizpide eta jokabide bakarra ageri dira (boto guztiak dira Josetxorentzat bat izan ezik, alkate zaharrak bere buruari emanikoa, alegia).

Lehen irakurleentzako istorioa dugu hau, eta, alde horretatik, egia da arin eta gustura irakurtzen den ipuin bat dugula; Mitxel Muruak ederki lortzen du istorioaren nondik norakoan irakurlea eramatea, elkarrizketa biziak eta deskribapen urri baina zehatzen bidez. Egia da halaber, oso biziak, argiak eta iradokitzaileak direla Antton Olariagaren irudiak, testuari informazio gehiago eranstean dizkiola eta, kolore eta trazu aldetik, oso indartsuak direla. Teresa Duranek ilustrazio-gintzaz zioen bezala, irudiak indarra hartzen du Olariagaren obra honetan ere (azaleko irudian harginarenarekin batera ageri diren besoen irudi iradokitzailean bezala).

Hala ere, niri, bigarren zatia erantzerik garapenean, ez zait oso sensazio ona geratu. Ipuinak hasieratik duen indarra eta balioa, gero, alkate berriaren aukeraketan airea galtzen ari den puzgarriaren antzeko sensazioa utzi dit. Baina, Jaussek zioen bezala, espektatibak norberaren kontua dira eta *Josetxo hargina* ipuin entretenigarri eta gomendagarria dugu, tradizioa eta gaur egungo gizarteaz uztartzen dituen ipuina.

Xabier Etxaniz Erle



Letrak elurretan
ANTTON KAZABON
Ilustratzailea: JOKIN LARREA
Elkar, Donostia, 2011

Hosto eta orri artean

Denis mendian bizi da aitonarekin, herritik eta eskolatik oso urruti eta, horregatik, ez du irakurtzen ez idazten ikasi. Arazo horri irtenbide bila Denisen lehengusina gonbidatzen dute Gabonetako oporrak pasatzera harekin mendiko bordan, eta, horrela, mutilari irakatsi ahal izango dio irakurtzen eta idazten.

Kazabonen liburu hau opor horien kontaketa dugu, nola iritsi zen Edurne eta nola, Denisen laguntzarekin, hasi zen inguruak ezagutzen, nola ikasi zuen neskak zerua irakurtzen: «goiz gorri, arratseko euri» (45. or.); lurreko markak irakurtzen: «ikusten al dituzu lurreko marka hauek? Lur gorri hauek guztiak, gauetz basurdeek janari bila, muturrarekin harrotutakoak dira» (30. or.); antzaren jokabidea irakurtzen: «hotza datorrela. Eta bihar bertan, beharbada, elurra mara-mara egingo duela. Antzarak oso azkarrak dira, eta neguko hotzaren kilimak atzetik sentitzen dituztenean, ihes egiten dute, eguraldi hobearen bila» (23. or.).

Egunak joan ahala irakurlea mendiko bizimodua ezagutuko du, Edurneren eta Denisen arteko harremanaren ondorioz natura hobeto ezagutu,

baina baita bi neska-mutikoen artean sortzen ari den adiskidetasun-sentimendua baino sendoagoa dena ere.

Antton Kazabonek gertakariz, abenturatxoz osaturiko idazlana eskaintzen digu, oso erraza egituran (egunero gertatzen diren kontuak azaltzen baititu, ordena kronologiko batean) eta sinplea idazkeran, elkarriketen bidez informazio asko helaraziz (eta horrek, besteak beste, testuari arintasuna ematen dio, erraztu egiten du irakurketa eta biziagoa bilakatzen). Baina, sinpletasun horretan, bada mezu bat baino zerbait gehiago; adiskidetasuna, ekologia, naturaren ezagutza... baina baita kulturari buruzko gogoeta ere. Izan ere, Eduarne Denisi irakatsi behar dio letrak irakurtzen, letrak idazten; baina Eduarne berak askoz gauza gehiago ikasten du Denisek irakatsita. Eta kulturaz, jakitun izateaz, bada gogoeta bat nahiko polita Eduarneren eta Denisen arteko elkarriketa batean:


«—Bihar hasi beharko dugu, Eduarne. Ez badut irakurtzen ikasten, bizitza osoan ezjakin hutsa izango naizela esango dit aitonak. Nik ez dut horretarako batere gogorik, baina... Badakizu, ni hosto eta orbel artean gustura ibiltzen naiz, baina liburueta orri artean... ez dakit nola moldatuko naizen.

—Zu ezjakina? Nahi nuke nik zuk adina jakingo banu». (41-42. or.)

Irakurketa goxo eta arin horretan oso lagun-garriak dira, bestalde, Jokin Larrearen irudiak, egoera ederki islatzen duten zuri-beltzeko irudi bikainak eta liburuaren tonuarekin bat egiten duten ilustrazio ederrak.

Xabier Etxaniz Erle

8+



Patzikuren problemak

KATIXA AGIRRE

Ilustratzailea: MATTIN

Elkar, Donostia, 2010


Haurren konfliktoak

Haur- eta gazte-literaturan, batzuetan, beharrezkoa da konfliktoak islatzen dituzten idazlanen presentzia, literaturaren alderdi horretan aritzen diren guztiak konfliktoak gauzatzeko moduan bat ez badatoz ere. Izan ere, batzuek pentsatzen dute, haurra, babestu behar den izakia delarik, literaturan bizitzaren alderdi mingarrienak alde batera utzi behar direla. Tira, konflikto guztiek ez dute zertan tragediak izan, eta haurrentzako liburueta tragedia bihurtzen ez diren alderdi konfliktiboak arazorik gabe ager daitezkeela ematen du, azken finean konfliktorik gabe ez baitago literaturarik. Katixa Agirrek haur baten neurriko konflikto bat aurkezten du *Patzikuren problemak* izenburua duen kontakizun honetan. Ez dago zehazki jakiterik zein den protagonistaren adina, baina kontatzen denaren arabera (oraindik ia ez da gai bere kasa irakurtzeko) ez bide da zazpi urtetik pasatzen. Zoriontsu bizi da gurasoekin, triangelu perfektu batean. Bizitza lasai eta arazorik gabea darama: gurasoek ipuinak irakurtzen dizkiote, zinera eramaten du amak eta izozkiak erosten dizkio aitak. Gurasoekin osatzen duen mundua

perfektua da, bizitza akats gabea da, baina... Baina triangelu perfektu hori hautsiko duen osagai berria agertuko da haren bizitzan: ama haurdun geratu da, eta Patzikuk etxean betetzen zuen pribilejiozko tokia galdu egingo du. Narrazioa lehenengo pertsona kontatuta dago, Patzikuren ikuspuntua azaltzen baita istorioan. Idazleak argumetua aurrera eramateko erabili duen baliabide garrantzitsua umorea da, konfliktoaren zama astuna desagerrarazteko, konflikto horrek sortzen duen egoeraren lepotik barre egitea bezalakorik ez dago-eta. Dena dela, hemen, narrazioan, kontraesan bat dagoela iruditzen zait, nolabait esateko inkoherentzia narratibo bat. Patzikuk kontatzen digunez, bere egoera desesperatua da, baina lehenengo pertsona eskaintzen duen kontraera ezin da desesperaziozko kontraera izan, konfliktoa gainditu eta gero gauzatutako narrazioa baita berea, hau da, desesperazioa gainditu ondorengoa. Egoera larriak eta desesperatuak umore puntu batekin azaltzen dira, baina narratzailea ez da horretaz konturatzen. Jakina, haurra den irakurleak barre egingo du, egoera identifikatzen badu behintzat, ziur aski bera ere halako egoera batetik pasatua baita. Eta hain zuzen ere protagonistarekiko identifikazio hori da liburuaren balio nagusietako bat.

Javier Rojo

10 +



Merioaren ibilbidea: hegaldi bat lehenaldian

PATXI ZUBIZARRETA

Ilustratzailea: PATIRKE BELAZA

Gerediagi elkarte, Durango, 2010

Molde berriak

Einsteinek zioen jakinduria baino garrantzitsua goa dela irudimena. *Merioaren ibilbidea: Hegaldi bat lehenaldian* liburuan biak uztartuta agertuko zaizkigu, ezagutza eta imajinazioa.

Gerediagi elkarteak argitalpenaren eskubidea du, Patxi Zubizarretak irakurlea liluratuko duen istorioaren ardura, eta Patirke Belazak (lehen Arenillas abizenarekin ezaguna) ilustrazioekin kolorez janzteko enkargua. Guztiei esker guk, irakurleok, Durangaldea hobeto ezagutzeko aukera izango dugu, Bizkai aldeko zenbait herritako historia eta geografia oinarri hartuta.

Liburuaren helburua informazioa eta ezagutza helaraztea baldin bada ere, badu literatura ukitura. Egun bateko jardunean gauzatzen da istorioa, ikasleek txangoa egiteko baliatuko duten egunean, alegia. Paula da protagonista eta triste samar agertuko da, Peru laguna gaur, hain juxtu, gaixotu egin delako. Ibilaldian zehar, gidari berezia izango dute, Maria, eta berak igarkizunak, hitz-jokoak eta kontu bitxiak erakutsiko dizkie. Mariari esker jakingo dugu, esaterako, Durangon

pentsatu zutela aireportua egitea, nahiz eta gero Sondikan egin zuten.

Paulak sarri erabiltzen du sakelako telefonoa, ikusten eta ikasten ari diren kontuen berri emateko Peruri hainbat sms, argazki edo bideo zati bidaliko baitzkie. Agian, horregatik, liburua eskuratzerakoan, sakelakoa babesteko Merioaren irudia daraman opari bitxia jasoko du irakurleak.

Egilea, itzultzaile fin eta trebea izateaz gain, idazle ugaria dugu. Horren lekuko, hirurogei liburitik gorako uzta eta han eta hemen jaso dituen sari garrantzitsuak. Aipatu gabe ezin utzi era guztietako liburuak idatzi dituela. Sortzaile gutxi dute abilitadea muga guztiak saiatauta urrunago joateko. Zubizarretak aberastasun itzelaz jantzi ditu euskal haur- eta gazte-literaturaren orrialdeak, alkimista handia dugu.

Fikzio jolas horretan kokatzen dira, adibidez, berak idatzitako Oñatiko Arrikruz kobei eskainitako liburua, *Orroa uraren gainean*, testu deskriptiboagoa duena; edo edizio zaindu eta dotorea duen *Gau bat ingeru artean*, Gasteizko Santa Maria katedral zaharra berritzen ari zirela eta, horren aitzakian Pamielak eta Arabako Foru Aldundiak kaleratutako liburu gomendagarria. Azken horrekin konparatuz, beharbada, *Merioaren ibilbidean* faltan sumatzen dira ohar historiko-artistiko edota literario batzuk, informazioaren ikuspuntutik batutako oharrak, txangoak egiteko mapak, norbaiten hitzaurre edo poema bat... liburuari osotasun eta dotorezia emango liokeen argitalpen bat, alegia. Nago edizioari mesede handia egingo liokeela.

Irudietan, aldiz, apustua egin da, hainbat elementuren bat egite interesgarria ikus daiteke liburuan. Bost partaideren argazkiak eta marrazkiak, teknikoki oso uztarketa landua: collage, marrazkiak, etab. Ohiko muga zurrunetatik kanpo, betiko formulak haustea mesedegarri gertatzen zaigu.

Patxi Zubizarreta oraingoan ere formula berriak arakatzen dabil, jorratutako bideetatik aldendu nahian, literatura bere zentzu zabalean gustagarriagoa egiteko eta informazioa ere modu dibertigarrian eskaintzeko.

Asun Agiriano

12 +



Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako
JOSEBA SARRIONANDIA

Ilustratzailea: LIERNI ALTUBE

Xangorin, Donostia, 2010

Sarri gazteentzat

2010eko sorpresen artean Joseba Sarrionandianen liburu hau dugu. Orain arteko lanez aparte, beste estilo, tonu eta formatu batean eginiko lana daukagu eta horregatik bakarrik bitxia da liburu hau, baina baita ere argitalpena literatura lanetan ohikoa ez den argitaletxe baten eskutik etorri delako ere. Xangorin etxeak (*Hik hasi* aldizkariaren eta taldearen lanagatik ezaguna dena) plazaratu du Sarrionandianen lan hau, eta argitalpena txukuna eta zaindua izanik ere (aipatzekoak dira Lierni Altuberen irudiak koloretan edo azal gogorrez eginiko enkuadernazioa, esterako) susmoa dut ez ote zuen ibilbide luzeagorik izango lan honek bilduma baten barruan izanik. Baina Xangorin-koek, bestalde, liburuaz aparte beren web orrian lan honen inguruko proposamen didaktikoa egin dute. Guk proposamen hori kontuan izan gabe *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* lan honen azterketa literarioa egiten saiatuko gara ondoren lerroetan.


Joseba Sarrionandiak aurretik helduentzat hain arrakastatsuak izan ziren *Ni ez naiz hemengo* edo *Ez gara geure baitakoak* liburuetan bezala, oraingo

honetan ere testu labur ugariz osaturiko produktua eskaintzen digu. Ipuinak, gogoetak, jolasak, ateraldiak eta antzeko 150 bat narrazio laburrek osatzen dute liburua. Estilo, tematika eta egitura aldetik ere oso ezberdinak dira. Badira, liburuko lehena bezala: «“Ipuin bat kontatuko dizut”, esan zidan aitak. Eta berehala konturatu nintzen egia zela, gezur bat kontatzen hasi zelako» hitz joko eta gogoeta txertatzen dituztenak; kontakizun klasikoetatik abiatuta hipertestu berri bat, kritiko, harrigarria, eskaintzen dizkigutenak («eta Penelope?» narrazioaren kasua, adibidez); ateraldi bitxiak kontakizunak direnak («ikusten dena eta ez dena» edo «barkatu» kasu); euskal kulturaren berri («erreturatu»), edo Ameriketako indioena («mendekuak») ematen diguten narrazioak; eta abar. Baina liburuko orrietan zehar ipuinak hor jarri dituenarekin batera eginiko ibilbide horretan, gu geu ere idazle bilakatuz, era askotako fruituak hartuko ditugu; mota askotako janariak eta edariak aurkituko ditugu, eta gozatu egingo dugu Sarrionandiak eskaintzen digun jolasarekin, janari karta zabal horrekin.

Liburu honek balio ugari ditu, idazlearen ekarpena oso handia izan da, istorioak kontatzeko gaitasun ikaragarria baitu, baina horrez gain gaien ugaritasuna eta istorioek sorturiko gogoetak azpimarratu beharko genituzke. Ondo kontaturiko istorio, itxuraz arin baina izatez nahiko sakonak dira liburua osatzen dutenak (gorago aipaturikoa, liburuko lehena, horren adibide argia dugu); hala ere testuen artean badira gorabehera nabarmenak hartzaileei dagokienez, batzuk nahiko infantilak izan badaitezke ere, gehienetan ezagutza gutxieneko bat behar da narrazioaz gozatzeko.

Edozein modutan ziur gaude Sarriren liburu honek ez duela Txekhovek proposatzen zuen amaiera izango: «“Zer egingo dut istorio eta apunte hauekin?”, galdetu nion. “Argitaratu ala zaborretara bota?” “Zuk argitaratu. Egingo dizute mesede hori. . .”, erantzun zidan Anton Txekhovek. “Irakurleek botako dituzte zaborretara”».

Xabier Etxaniz Erle



Isilik kantatzeko
ANTTON KAZABON
Argazkilaria: A. KAZABON
Ibaizabal, Bilbo, 2010

Irudiari hitza jarritz

Poesia-liburu baten aurrean gaude, baina hori bakarrik esatea ez litzateke zuzena izango. Antton Kazabonek 44 poema bildu ditu liburu honetan baina orriak pasatzen hasi ahala, bada irakurlela harritzen duen elementu bat, argazkiak. Euskal Herriko bazter ugarietan ateratako koloretako argazkiak ageri baitira poema bakoitzaren ondoan, poemei laguntzen, poemekin liburua osatzen. Liburuaren atzeko azalean ageri den bezala: «paisaiei begira jarri da argazkilaria. Une batez, argazkilaria berruko sentipenak eta emozioak piztu zaizkio, eta argazki bakoitzaren alboan idatzi ditu sentimendu horiek».

Alde estetiko edo formaletik, beraz, bitxia eta erakargarria da obra hau; paper sendoa, koloretako argazkiak, paisaia ederrak. . . eta, horien ondoan, poemak, estilo, tonu eta tematika ezberdinetakoak, argazkiek iradokitzen dutenarekin lotuak, Joxerra Garziak hitzaurre argi eta interesgarriak adierazi bezala.

Azken kontu horrek ere, hitzaurrearenak, berezi egiten baitu liburua; izan ere liburuetan, obra

literarioetan, hitzaurreak gero eta arrotzagoak zaizkigun garai honetan, Garziak ederki azaltzen baititu liburu honen berezitasuna, liburu honen balioa eta poemetan idazleak erakutsitako abilezia eta aberastasuna.

Irudia eta hitza dira, beraz, liburu honetako elementu nagusiak. Eta hemen irudia islatzea zaila zaigunez, hona hitzaren adibide pare bat, arestian aipaturiko estilo eta tematika aberetsaren adierazgarri: «Hango Hemengo./ Zure etorrian / noa. / Nire joanean/ zator. / Orain ni hangoa ere banaiz/ zu hemengo ere bazara./ Biok hango/ Hemengo» (29. or.); eta haikuen iturrietatik edandako «Taupadaz taupada» poema: «Taupadaz / taupada / maitasun huts». (47. or.). Lehen poema horren kasuan neska bat ikus dezakegu argazkian, atzetik sorbaldak zati bat eta burua, arroken kontra jo duen uhinari begira; bigarrean, berriz, taupadaz taupada ari den horretan, Kontxako hondartzara ageri zaigu ezkerreko argazkian.

Kazabonek gazte nahiz helduentzako poemak eskaini dizkigu liburu honetan; askotan komentatu izan den zehaztu gabeko mugan horretan koka liteke obra hau, eta hori nabari da poemak egiterakoan erabilitako estiloan, sinbolismoan, metaforetan, jolasetan. . . eta baita gaietan ere. Maitasuna, lurraerikiko atxikimendua, gure ingurua, askotariko gaiak baitaude liburu interesgarri honetan.

Zalantzarik gabe, hainbestetan aipatu izan dugun bezala, idazle honen bide berriak eraikitzeko eta irekitzeko asmoaren beste adibide argi bat.

Xabier Etxaniz Erle



Heriotza zuriz jantzita
MIGEL ANJEL MINTEGI
Ilustratzailea: IVAN MATA
Ibaizabal, Bilbo, 2011

Giza trafiko zitala

Gaszte-literatura mugako literatura da, eta zubi-literatura. Haur- eta helduen-literaturaren tartean kokaturik gazteen interes, gustu eta beharrei erantzuteaz gain, helduen literaturarako bidean dagoen produkzioa da. Irakurlea prestatu egiten duena, irakurketa sakona eta osoa egiteko elementuak eman behar dizkiona. Eta, hain zuzen, muga egote horren ondorioz, helduen literatura bidean dagoen produktua izanik, sarri kritikatu izan da, helduentzako kalitatetik ez duena hor kokatzen omen delako garbi esanda.

Heriotza zuriz jantzita nobela bizi eta entretenigarria irakurtzean horrelako sentsazioa izan nuen nik hasieran. Protagonistak nahiko helduak dira (edo ez liburuaren irakurleen adinekoak, behinik behin) eta tratatzen duen gaia ere (giza trafikoa, prostituzioa, ...) gazteen interesetatik urrun samar kokatzen nituen. Baina Mintegik, oraingoan ere, ederki erakutsi du istorioak kontatzeko duen abilezia. Egia da hasieratik nabaritzen dela zer gertatuko den laguntza eskatzen dien neskekin (nahiz eta ez dakigun nola iritsiko den neska hori gure neska-mutilengana), baina nobelaren tentsioa une horretatik aurrera ikusiko digu.


Nafarroako mendi aldeko herri txiki batean prostituzio-etxe handi bat ireki dute eta bertan lan egitera behartzen duten neska gazte batek, hamazazpi urteko neska brasildar batek, ihes egin eta kontakizuneko protagonistak diren lau gazte unibertsitarioren opor-etxean ezkutatu da. Polizia ustelekin eta klubeko morroiekin izango dituzte gora behera batzuk gazteek, argi eta garbi ikusten baitute guztiek unibertsitarioren etxe inguruko eta beraien inguruko sarea gero eta gehiago estutzen ari dela. Horrela, irtenbide bakarra aukeratu beharko dute: poliziak eta morroiak engainatu eta mendi aldera abiatu Klaudiaren askatasunaren bila.

Nobelaren abiapuntua elurretan egun batzuk gozatzera doazen lau gazteren irteera bat dugu eta, hasieran, horixe dugu, ustekabe eta anekdotaren batekin edo bestearekin elurretan eskiatzen ari diren gazteen kontakizuna, baina, sabaian zarata batzuk entzun, eta gauean neska brasildarra ezkutatu aurkitzen duten unetik aurrera nobelak bestelako norabidea hartuko du. Bizia eta tentsio handikoa. Misteriozko edo intrigazko filmetan bezala, denok ikus dezakegu klubeko morroiek eta poliziek nola estutzen duten gero eta gehiago protagonisten inguruko soka. Kontrolak jartzetik errepidean etxea miatzera edo haretako bat bahitzera pasatuko dira informazio bila. Irakurleak, orduan, nolabaiteko sinpatia sentitzen du gazteekin (unibertsitariorekin baina, batez ere, prostituzio-saretik ihes egin nahi duen neskatzarekin) eta haiekin sufritu eta gozatu egingo du.

Mintegiren nobela honek gure literaturan oso gutxitan ukitu den gai bat ekartzen du gure artera, gaur egun gizartean eztabaida sorrarazten duen prostituzioaren gaiari giza trafiko zitala gehitzen baitio.

Arestian, gaszte-literaturaren gorabeheraz hitz egitean, ez dugu aipatu literatura horrek ere laguntzen duela giza nortasuna garatzen, kritikotasuna bultzatzen, gizarteko gertakarien aurrean jarrerak izaten... eta horregatik guztiagatik, besteak beste, merezi du Migel Angel Mintegiren istorio latz eta, era berean, hunkigarri hau irakurtzea.

Xabier Etxaniz Erle




Munstroaren hamaika aurpegi
SEVE CALLEJA
Desclée, Bilbo, 2010

Munstroen zerrenda

Seve Callejak beldurrezko ipuinen antologia bat aurkezten digu *Munstroaren hamaika aurpegi* derituz liburua honetan. Gehienak idazle klasikoekin ipuinak badira ere (besteak beste, ipuin-egileen artean Wilde, Lovecraft, London, Maupassant izenak agertzen dira), baten bat herri-tradizioetik hartutako ipuina da. Eta kasuren batean Interneten aurkitutako istorio bat ere badago, hiri-legenda moduan aurkezten dena. Antologia prestatzarekin batera Callejak hitzaurre interesgarri bat ere eskaintzen digu. Munstroei buruz aritzen dira ipuinak eta antologiagilearen asmoa, liburuaren izenburuan iradokitzen den bezala, munstroa gisako izaki baten aldaeren adibideak eskaintzea da. Munstroaren presentziak gizakien gizatasuna indartzeko edota deuseztatze balio du, azken finean gizakiak munstroak inplikatzeko duen desberdintasunaren aurrean beren burua definitu beharrean baitaude. Munstroak beste errealitate batzuekin jartzen gaitu kontaktuan, eta beste errealitate horietan gizaki normalen ikuspuntutik begiratuta ohikoak ez diren gertakariak posible dira. Bizitzaren bikoiztasuna ere erakusten digu izaki honek, pertsona arruntaren ifrentzua izango balitz bezala aurkezten delarik, ongiaren eta gaizkiaren arteko dikotomiaren

errepresentazioa ikus baitaiteke haren presentzian. Baina normaltasunaren kontzeptuaz ere hausnartzera eramaten du halako izaki batek, normaltasunaren neurriaren erdigunean norbera jarri ohi baita; gogoratu, bestela, Tod Browning-en *Freaks* filmean gertatzen zena. Munstroek beldurra eta nazka sortzen dute, baina baita gupida ere, eta alde horretatik gizakien gizatasunaren alderdirik gaiztoenak ez ezik hoberenak ere pizteko ahalmena du besteak ez bezalako izakiaren presentziak. Eta kanpoko azalaren eta barneko izaeraren arteko aldea nabarmentzeko ere balio dute: gehienetan kanpoko azal horren azpian barneko gaiztakeria dagoela ematen badu ere, kontrakoa ere aurki daiteke, itxura eta gezurra parekatuz. Antologia honetan denetarik pixka bat aurkitzen dugu, eta horrelako antologietan gertatzen den bezala, ezinezkoa da denen gustukoa izatea, gehienetan irakurleek zerbait falta dela nabariko dutelako. Klasikoagoen artean, nire ustez, Hoffmann-en ipuinen batek, adibidez, lekua eduki beharko luke honelako antologia batean. Eta zientzia-fikziozko istorioen batek ere osa lezake munstroen gaineko ikuspegi hori.

Javier Rojo



Dena sutan
SUZANNE COLLINS
Alberdania-Erein, Donostia, 2010

Heriotzaren ikuskizuna

Dena sutan izenburuko nobela agertu zaigu euskaraz, Suzanne Collins-ek idatzitako *Gose jokoak* trilogiaren bigarren liburua. Zientzia-fikziozko trilogia bat da, non aurkezten zaigun balizko etorkizuneko mundu krudel bat. Mundu honetako gora behera nagusiak aurreneko nobelan agertzen ziren, eta ezinbestekoa da haien berri izatea bigarren nobela honetan gertatzen dena ulertzeko. Panem izeneko herrialde batean gaude. Herrialde honetan Kapitolioa eta Hamabi Barruti daude. Nobelaren argumentua hasi baino lehenagoko garai batean, Barrutiak gerran altxatu ziren Kapitolioaren kontra, baita gerra galdu ere. Horren ondorioz diktadura krudel bat zabaldu da Panem-en, eta urtero-urtero joko batzuk antolatzen dira, non barruti horietatik hautatutako bina gaztek parte hartzen duten. Joko hauek telebistaren bidez eskaintzen dituzte, ikuskizun bat izango balira bezala. Jokoen helburua oso sinplea da: bizirik ateratzea, eta irabazle bakarra egon daiteke. Aurreko nobelan, trikimailu bati esker, bi jokalaririk bizirik atera ziren, Katniss eta Peeta deitzen diren neska-mutilak. Bigarren

nobela honetan testuinguru horri buruzkoak ezaguntzat-edo ematen direlarik, bestelako zehaztasunetan zentratzen da narrazioa, adibidez, Katniss-en barruko kezketan (pertsonea honen ikuspuntutik kontatuta dago istorioa) edo konspirazio politikoan. Katniss eta Peeta berriro bidaliko dituzte jokoetan parte hartzera, eta, poliki-poliki, Kapitolioaren kontrako konspirazio batean sartuko dira. Konspirazio horretan dena da sekretu, eta, beraz, zaila egingo zaie jakitea nor den adiskidea eta nor etsaia. Jokoetan gertatzen denaren deskribapen zehatza eskainiko da, eta nobelaren argumentua urteko jokoen bukaerak amaitzen badu ere, konspirazioaren ondorioz matxinada pizten ari dela ikusiko dugu, hirugarren liburuari ateak zabaltzeko. Zientzia-fikziozko espekulatioan bezala, liburu honetan gure munduan egon badauden joera batzuk muturreraino eramaten dira. Esate baterako, *reality show*etan ikusten duguna hemen heriotzarekin egindako ikuskizun krudela bihurtuta agertzen zaigu. Eta abentura-nobela den arren, zer pentsatua ere eman dezake liburu honek. Bukatzeko xehetasun bat, euskal literaturaren izaera ulertzeko baliagarria izan daitekeena: gaztelaniazko itzulpenean liburu hau 12-16 urte arteko irakurleentzako bilduma batean agertzen da; euskarazkoan, ordea, ez da gazte-literaturaren aurrean gaudela adierazten.


Javier Rojo

Bombástica Naturalis
IBAN BARRENETXEA
A buen paso, Madrid, 2010

Flora eta fauna*

1810. urte aldera Bombastus Dulcimer doktore, botaniko eta filosofo bikainak eraldatzeko gaitasun handiko hainbat landare eta zuhaitz espezie eta barietate sortu zituen. Haietatik flora-objetu hibridoak erretzen ziren; adibidez, Lizar-barkua (*Fraximus navicula*), Nartziso-ispilua (*Narcissus speculum*) edo Juka-txorimalo beldurgaria (*Yucca vavato terribilis*).

Iban Barrenetxea da katalogo-herbolario fantastikoaren egilea, eta modu alfabetikoan aurkeztuko dizkigu (A-tik Z-ra) Bombastus Dulcimer doktorearen asmakizun botaniko ezohiko eta erabat surrealista haien habitat naturalenean. Inbentario horren harira, testuak objektu begetalekin lotutako istorioak bildu ditu definizio, deskribapen eta kontakizun laburretan.



Horretarako, Barrenetxeak Bombastus-en irudia irudikatu du Udareondo-bizikleta baten gainean, eta jarraian garai viktoriarrean kokatutako hainbat egoera sortu ditu, non pertsonaia hainbat espezierekin eta haiek eskaintzen dituzten erabi-

lera askotarikoekin agertzen diren. Egoera horiek beraien pertsonaia bereberekin, ilustratuak baina hitzik gabe, izan badute sekuentziario eta jarraipen harrigarri bat: Bombastusen atariko iruditik hasita, non bere udareondo-globoan urrutuzten sumatzen den, azken orriko bere kala-paraxutarekin izango duen erorketara arte. Arrastoa utziko duten istorioak harilkatzen dira liburuan zehar: txori urdinarena, errekarera erortzearena edo Bombastusen globoaren zuluatuztena, kasu.

Dudarik gabe, *Bombástica Naturalis* album ilustratuz mozorrotutako hazi bat da, eta hazi horretatik arte-lan original bat ernamunduko da.

Mikel Ayerbe

* Iruzkun labor hau *Educación y Biblioteca* aldizkari 182. zenbakian argitaratu zen, 2011ko martxo-apirilko alean, hain zuzen. Zoritxarrez, aldizkariaren azkenurreko alea izan zen, 183. zenbakiarekin *Educación y Biblioteca*-k argitaratzeari utzi baitio.

BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.
Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:.....
Helbidea:.....
Herria: Posta-kodea:.....

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.
Euskadiko Kutxaren honako kontu-korrontean sartu:
3035 0242 68 242 0 00247 I
eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.
Galtzagorri elkartea, Zectoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487